

## Politikarien mahaia

Maiatzaren 6an ospatutako bileraren akta

LEKUA: Azpeitiko udaletxean  
ORDUA: 18'30etatik 20ak arte

### BERTARATUTAKOAK:

#### UDALA

Eneko Etxeberria	Alkatea (Bildu)
Aritz Epelde	Alkate ordean (Bildu)
Ainhoa Beristain	Zinegotzia (Bildu)
Manuel Unanue	Zinegotzia (Bildu)
Imanol Amenabar	Zinegotzia (Bildu)
Aitor Aranguren	Zinegotzia (Hamaikabat)
xxx	
Izaskun Ceciaga	Ingurumen teknikaria/Tokiko Agenda 21
Ildfonso Lizarralde	Hirigintza teknikaria

#### MINUARTIA ENEA/IKERTALDE

Ana López  
Ainhoa Gea  
Ainhoa Mitxelena

### GAI ORDENA

1. Prozesuaren egoerari buruzko azalpena.
2. Diagnostikoaren emaitzak ezagutarazi eta Plan berriaren oinarri izango diren lehentasunezko eremu nagusiak adostu.
3. Formulazio estrategikoa egiteko emandako pausuak azaldu

## LABURPENA

### 1. Prozesuaren egoerari buruzko azalpena

Laguntza teknikoak Azpeitiko arlo sozial eta ekonomikoari buruzko Diagnostikoa jada osatuta dagoela aipatzen da. Diagnostiko hau egiteko prozesuren hasieran sortutako hiru mahaiekin batera (mahai politikoa, mahai teknikoa eta herritarren mahaia) landu da, guztion ekarpenak jasoz. Honetaz gain, udal eta eskualde mailako teknikariekin elkarriketak egin dira informazioa jaso eta beraiekin batera aztertzeko.

Horren guztiaren ondorioz, gai edo arlo bakoitzeko fitxa bat osatu da non eremu ezberdinak aztertzen diren eta, aldi berean, arlo bakoitzeko lehentasunezko eremuak aipatzen diren. Fitxa guztiak bertaratutakoei gonbidapenarekin batera bidali zaiela gogoratzen zaie.

Proiektuaren hurrengo fasera pasa aurretik, hau da, Plana definitu aurretik, zehaztutako lehentasun hauei balioztapen bat ematea beharrezkotzat jotzen da, horiek izango baitira ekintzak proposatzen hasteko hartuko den oinarria.

## **2. Diagnostikoaren emaitzak ezagutarazi eta Plan berriaren oinarri izango diren lehentasunezko eremu nagusiak adostu.**

Jarraian, laguntza teknikoak diagnostikoaren emaitza nagusiak azaltzen ditu. Emaitzak hiru ataletan azaltzen dira<sup>1</sup>:

- Garapen ekonomikoa eta lan merkatua
- Gizarte gaiak
- Hezkuntza, kultura, euskara eta kirola

Atal bakoitzean balorazio positiboa (aurpegitxo berdea), negatiboa (aurpegitxo gorria) eta tarteko balorazioa (aurpegitxo horia) izan duten eremu nagusiak azaltzen dira. Aldi berean, arlo bakoitzean definitu izan diren lehentasunezko eremu esanguratsuenak ere aipatzen dira.

Jarraian atal bakoitzaren inguruan egindako ekarpenak azaltzen dira:

### **GARAPEN EKONOMIKOA**

Atal honi buruz azaltzen denaren inguruan, Alkateak ondorengo ekarpenak egiten ditu:

- Udaletxeko tresnak optimizatu beharko lirateke eskualde mailako entitateekiko duplizidadeak saihestearren.
- Udalak ez du industria teknologikoan aurrerapenak emateko tresnarik.
- Ez dago lur industrialik eta hau zailtasun bat da industria bultzateko.
- Garraio eta komunikabide falta udalerriko ahultasun nagusi bat da, eremu ezberdinetan eragina duelako.

Bestalde, Ekintza Plana definitzeko kontuan hartu beharko liratekeen eremuei dagokienez, Alkateak jarraian zehazten diren ekarpenak egiten ditu:

- Lehen sektorea bultzatzeko beharra dago, Azpeitiko baserriekin lan zuzena eginez Urkomerekin elkarlanean.
- Industria arloan ez dira ingurumen kudeaketa sistemak ezta ekoeraginkortasunaren inguruan egiten diren proposamenak lehentasunezkoak ikusten.
- Udalerriko garapen ekonomikoa udalak bere kabuz lantzen hasteko helburua dago, eskualdeko entitateekin elkarlanean.
- Orokorrean, industria jorratzen duen atalari buelta bat ematea egokitzat jotzen du, udalaren apustua gehiago zehaztuz.
- Merkataritza arloan aipatzen denarekin adostasuna azaltzen du. Hala ere, ez du oso garbi ikusten Azpeitia eta Azkoitiaren artean planteatzen den elkarlana. Zentzu honetan, laguntza teknikoak zein eremuetan planteatzen den elkarlan hori zehazten du, adibidez, formazio saioak antolatzeko.
- Turismo arloan, udalak turismo plan propioa izan behar duela aipatzen du, edo behintzat, izateko aukerak aztertu. Bestalde, planteatzen diren lehentasun batzuk jada martxan

<sup>1</sup> Aurkezpena egiteko erabilitako materialak aktarekin batera bidaltzen dira.

daudela esaten du. Ildo honetan, Alkateak ideiak batzuk aipatzen ditu, horien artean, Urola Kostako udalerriekin turismo eskaintza bateratua egitea.

## GIZARTE GAIAK

Ildo honetan, Alkateak jarraian azaltzen diren iruzkinak egiten ditu:

- Apartamentu tutelatuak ez dira ia inon funtzionatu, are gutxiago herri txikietan. Aurretik, eskaera dagoen ala ez aztertu beharko litzateke.
- Giza baliabideen eskaera edo faltari buruz aipatzen dena (gizarte zerbitzuetan eta kirolan) ez litzateke diagnostikoan agertu behar.
- Tabernek sortzen duten zaratari buruz aipatzen dena gizarte zerbitzuetan kokatzea ez da oso egokitzat jotzen.

## KULTURA, HEZKUNTZA, EUSKARA ETA KIROLA

Atal honetan, Kirol zinegotziak ondorengoa aipatzen du:

- Fitxan aipatzen diren puntu batzuekin ez dago guztiz ados:
  - o Bi frontoi txiki jada ez daude.
  - o Kirol mahaiaren izaerari buruz komentatzen da. Diagnostikoan mahai hau ez dela erabakitzailea aipatzen da eta Zinegotziak horrela esan behar duela aipatzen du, erabakiak udal komisioetan hartzen direlako.
  - o Herritar batzuk Azkoitira kirol egitera joaten direla baieztapena zalantzan jartzen da.

Alkateak ondorengoa aipatzen du:

- Kirolaren eremuan udalak egiten duen esfortzua gehiago azpimarratu beharko litzatekeela eta, batez ere, Azpeitiak kirol diziplina ezberdinetan tradizionalki izan duen nagusitasuna eta gaur egun ere daukan garrantzia.
- Kultura arloan, Alkateak Soreasu eraikinari kultur erabileraz gain, beste erabilera batzuk eman behar zaizkiola aipatzen du.

### 3. Formulazio estrategikoa egiteko emandako pausuak azaldu

Ondoren, laguntza teknikoak Planaren formulazio estrategikoaren eremuan planteatzen ari denaren berri ematen du. Zentzu honetan, teknikarien mahaian Planak jaso beharko litzuzkeen xedeen proposamen bat landu zela aipatzen da eta, honetaz gain, 2025 urtera begira udalerriko ikuspegia definitzen laguntzeko ideiak ere jaso zirela aipatzen da.

Jarraian, jasotako ideiekin osatutako hitz-mapa erakusten da:



Azkenik, bertaratutakoei hurrengo pausuak zeintzuk diren gogoratzen zaizkie, hurrengo bilera hemendik hilabete batera gutxi gora behera izango dela aipatuz:

- Formulazio estrategikoa adostea
- Ekintza Planaren zirriborro bat landu eta aurkeztea (hurrengo bileran)
- Ekarpenak jaso, baloratu eta txertatzea
- Ekintza Plana udal batzarrean adostea

Bilerari amaiera ematen zaio.